Ohorezko Lehendakaria: MARTIN UGALDE • Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI • Kontsellari Ordezkaria: IÑAKI URIA • Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI • Gerentea: MIKEL SOROZABAL • Publizitatea: IDOIA SANZ.
Egoitza Nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain ☎ 943300222 / Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 / Publizitateko faxa: 943300707 • Web gunea: www.egunkaria.com
• Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com / publizitatea: publi@egunkaria.com

Egunkaria

Astezkena, 2000ko urriaren 25a
XI. urtea / 3.067. zenbakia

Batzorde Parekidea: 72564 E • Lege Gordailua: SS-800/90 I ISSN 1134-640X
OJDk IKUSKATURIKO HEDAPENA
Ordezkaritzak: • Araba: San Antonio, 20-1. ezker / 01005 Gasteiz / ☎ 945233872 / Faxa: 945233873 Publizitatea: ☎ 945131965 • Nafarroa: Iratze Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea / ☎ 948178078-79 / Faxa: 948178077 / ☎ Publizitatea: 948176686 • Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea / 48010 Bilbo / ☎ 944104046 / Faxa: 944103715 / ☎ Publizitate Orokorra: 944701199-80 / Publizitate Lokala: 944701114 • Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1/303 Posta kutxatila, 64100 Baiona / ☎ 559500575 / Faxa: 559637511

ZAKILIXUT

© Olariagak

Apez sagarra, anixa, mamula eta beste

Sagartzea elkarteak aurtengo denboraldiko azken sagarrak sartu ditu

CHRISTOPHE DE PRADA-SAMARUTI

Donaixtin atzo txikitxoenak ere aritu ziren sagar biltzen. Nagusiek, tresneria berria aztertu zuten.

OHITURAN baino jende gehiago bildu zen Donaixtiko Beltxu izeneko lantegiaren aurrean atzo goizean. Hain zuzen, 2000ko denboraldiko azken sagarrak sartu zituen Sagartzea elkarteak eta lana franko bazegoen bildutako lagun guztientzat.

Tokiko sagarren berpizteko eta baloratzeko asmoz, Sagartzea elkartea sortu zen duela zazpi urte Ipar Euskal Herrian. Hainbat laborarik bultzaturik, elkarteak helburutzat finkatu zuen tokiko sagar mota landatzea eta baliatzea lehengo ohitura berpizteko, hots sagardoa egiteko. «Gure lehen lana izan zen sagarrondoak landatzea eta oro har, 16.000 sagarrondo landatu genituen 31 ekoizleen etxaldeetan, Nafarroa Beherean nahiz Lapurdin», oroitu zuen Pantxika Maitia, elkarteko lehendakariak. Baina ez zuten edozein sagar mota landatu, baizik eta euskal sagarrondoak. Eta horrela berriro agertu ziren euskal bazterretan ia desagertu ziren hainbat mota: anixa, apez sagarra, eztika, mamula, ondomotxa, elisagarra, gordinxuria edo peatxa.

Sagarrondo landatze gehienak eginak izan ziren 1994an eta lehen emaitzak agertu ziren joan zen urtean. «Bildutako mozkinei esker, 25.000 sagardo pinta egin genituen, lehen entsaio gisa», azpimarratu zuen Maitiak. Aurten, bilketaren emaitzak bikoiztu egin dira eta 70 bat sagar tona bildu dituzte elkarteko kideek. «Bildutakoari esker, 50.000 sagardo eta sagar jus botila eginen ditugu, hots joan zen urteko doblea!».

Ekoizpenaren handitzeari aurre egiteko, elkarteak inbertsioak egin behar izan ditu. Esaterako, lehen langilea hartu du joan zen uztailean, kontratu gazte tituluarekin, eta sagardoa egiteko prozesua jarraitu beharko du. Era beran, sagardoa atxikitzeko upelak ere erosi zituen.

Elkarteak 1.2 milioi liberako inbertsioa egin du. Material gehiena Hego Euskal Herrian erosi du, bertako sagardo egileen adibideei jarraiki. Diru laguntza handiak izan ditu proiektua bururatzeko, nahiz eta inbertsioaren %60 bere gain gelditu. Alabaina, Sagartzea elkarteak badaki lehen urratsa baizik ez dela. Ekoizpena handitu nahi dute. «Orai arte, ekoizpen guztiak errazki saldu ditugu. Bada garaia komertzial sarea antolatzeko, batez ere geroa prestatzeko», azaldu zuen Maitiak. Izan ere, sagarrondo hektareak ematen baditu ere 5-7 tona gaur egun, helburua izanen da hogei bat tona biltzea hektareako.

Lutxi Fourcade
DONAIXTI

honelakoxeak dira
logelak
inchausti
mobiliario-n

FINANTZAKETA 24 HILABETE INTERESIK GABE
finantzaketa
interesik gabe
24 hilabete

MOBILIARIO
INCHAUSTI
N-1, Errekalde auzoa. LASARTE-ORIA
Ternuako Arrantzaleak, 2. AMARA (ARCCOren aldamenean)